

ZUMAIA / Inoiz baino partaide gehiago du aurtengo literatur lantegiak

Toki faltagatik, haur liburutegitik Gizarte Zentroko Branka aretora pasatu zituzten klaseak joan den larunbatean

Aritz Mutiozabal

Idazketarako zaletasuna sustatze aldera, duela bi asteburu jarri zuen abian Pako Aristi idazleak Udaleko Euskara Zerbitzua antolatutako literatur lantegia, inoiz izan duen parte-hartze handienarekin. Guztira, 20 lagunek eman dute izena aurtengo ikastaroan; gehienak zumaiaarak dira, baina tartean eskualdeko jendea ere bada: zaraiztarak, azkoitiarrak eta azpeitiarrak, adibidez.

Egia esan, nahiko harrituta gaude jendearen erantzunarekin. Ziur aski, Pako Aristi idazlea ikastaroko irakasle izatea arrazoietako bat izan daiteke. Baina baita jendea idazteko gogoz egotea ere, aditzera eman du Xabier Azkuek, Udaleko EBPB teknikariak eta lantegiko ikasleetako batek. Iaz taldea osatu ez zenez, bertan behera geratu zen aipatutako egitasmoa. Aurreko urteetan, bien bitartean, 8 eta 10 lagun bitarteko taldeak osatzen ziren.

Partaidetza hori dena arrakasta izan arren, era berean horrenbesteko partaidetzak klaseak apur bat baldintzatu dituela azaldu du Xabier Azkuek: Hasieran, ikastaroa Foronda kultur etxean haur liburutegian emateko asmoa geneukan. Baina lagun ugarik izena eman zuela ikusirik, beste toki bat behar genuela ohartu ginen. Gauzak horrela, estreinako klasea Forondan bertan eman ondoren, Gizarte Zerbitzuko Branka aretora igaro zituzten klaseak, joan den larunbatean. Hemendik aurrera, aipatutako aretoa izango dute ikasleek ohiko literatur gunea.

Horretaz gain, talde handia izateak beste eragozpen batzuk badituela aitortu du Xabier Azkuek; izan ere, horrenbeste jenderekin, lantegian aktiboki parte-hartzea nahiko zaila izaten da. Kopuru erdia izango bagina, uste dugu errazagoa izango litzatekeela norberak idatzitakoa azaltzea eta abar. Hala ere, pentsatzen dut ongi moldatuko garela.

Eragozpenak eragozpen, literatur lantegia hasi baino ez da egin, eta lehendabiziko bi klaseetan idazketako funtsezko oinarriak zeintzuk diren azaldu du Pako Aristik: batik bat, hizkuntzarekin lotuta dauden oharak. Antza denez, sormenezko idazlanak lantzen larunbat honetan hasiko dira, hirugarren saioan.

Ikastaroa larunbat goizetan izaten da, 11:00etatik 13:00etara, eta hamar saioz osatuta dago. Estreinako bi saioak jada emanda daudenez, zortzi saio gelditzen dira literatur lantegia osatzeko.

Hainbat herritan, literatur lantegiarekin

Zumaian ez ezik, hainbat tokitan aritu da Pako Aristi bere literatur lantegiarekin. Esaterako, joan den urritik urte bukaera arte, Getarian aritu zen irakasle eta orduan ere bi orduko 10 saio eman zituen. Kasu horretan, 7 lagunek eman zuten izena egitasmoan; Zumaian izena eman dutenen erdia baino gutxiago, hain zuzen ere.

Bestalde, otsailaren 5a bitartean, astelehenetan, Bermeoko Institutuko Batxilergoko lehen mailako ikasleei lantegi laburrago bat ematen ari da idazle ezaguna; izan ere, lau astetan lau saio emango ditu.